

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

3 positibo berri
1.618 hildako
2.323 positibo guztira*
UCIn EAEn

NAFARROAN

3 positibo berri
528 hildako
5.482 positibo guztira
UCIn
Sendatuak EAEn: 4.333; Naf: 9.557

Indarkeria matxistaren aurkako seinaleetan egindako pintadak salatzeke, elkarretaratzea atzo

Berriro ere 'Astigarraga indarkeria matxistaren aurka' dioten seinaleetako batean pintada bat egin da. Hau salatzeke asmotan, atzo kontzentrazioa antolatu zuten Aztifemiek.

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Ekaina hasieran, Astigarragako Udalak, indarkeria matxistaren aurkako seinaleak jarri zituen herriko hiru sarreretan.

Duela bi-hiru aste lehenengo pintadak agertu ziren, seinaleetako «hitzak estaliz», eta ekainaren 27an, berriro ere pintadak agertu dira. Hau salatzeke, atzo kontzentrazioa antolatu zuten Astigarragako Aztifemiek arratsaldeko 19:00etan, eta jende mordoak egin zuen bat elkarretaratzearekin.

Astigarragako Udalak jaki-

narazi du, horrelako ekintzak erabat gaitzesten ditutela, «eta horrelakoek ez dute indarkeria matxistaren aurka egiten dugun lanean eragingo ez desbideratuko ere». Horrez gain, azaldu dute, lanean jarraitzeko beharra dagoela, «are eta gehiago adostasun sozial handia dagoen horrelako mezu baten aurkako adierazpenak sortzen badira». Udalak argi utzi du, gehiengoak bezala, «berdintasunean eta aske bizi diren herritarren herria» nahi duela, eta hori lortzeko, lanean jarraituko duela buru-belarri. **K**



Herritar ugari egin zuten bat, atzo antolatutako kontzentrazioan.

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako udako ikastaroak antolatu ditu Hernaniko Udalak

Uda honetan haur, nerabe eta gazteek aukera izango dute, uda «modu aktibo batean igarotzeko». Izan ere, Hernaniko Udalak, hainbat ikastaro antolatu ditu, eta haietako batzuetan oraindik izena emateko aukera dago.

HERNANI UDALA

Udako ikastaroak jarri ditu martxan Hernaniko Udalak, haur, nerabe eta gazteek, uda «modu aktibo batean pasa dezaten», hilabete honetan zehar izango dira, eta ikastaro batzuetan oraindik izena emateko aukera dagoela jakinarazi du Udalak.

Nerabeei zuzendutako, lau ikastaro antolatu dira, hain zuzen 12 eta 17 urte bitartekoentzat.

Piragua ikastaroa, uztailaren 13tik 17ra izango da, arra-

tsaldeko 17:00etatik 18:30etara. Kaxkardik eskainiko du Fagollagan. Skate ikastaroa: Donostia-ko Holly Riders elkarteak Hernaniko skate pista dinamizatuko du, eta nerabeei «trikimailu ezberdinak egiten erakutsiko die». Uztailaren 13an emango zaio hasiera eta 16ra arte iraungo du, arratsaldeko 16:30etatik 17:30etara izanik. Izen ematea, datorren asteazkenean amaituko da. Nerabeei zuzendutako ikastaroetan izen ematea ondorengo linkan egin behar da: <https://labur.eus/GiplB>.

16:00etatik, 17:30etara iraungo du. Izen ematea, hilaren 15ean amaituko da.

Nerabeei zuzendutako azken ikastaroa, arku tiroarena izango da, uztailaren 20, 22, 24, 27 eta 29an eskainiko da, arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara. Kaxkardi elkartearen eskutik «arkua nola erabili eta dianara geziak nola bota» ikasteko aukera dago. Izen ematea, hilaren 15ean amaituko da.

Nerabeei zuzendutako ikastaroetan izen ematea ondorengo linkan egin behar da: <https://labur.eus/GiplB>.

17 eta 30 urte bitartekoei ere, ikastaroak

Gazteei zuzendutako bi ikastaro antolatu dira, lehena piragua ikastaroa, eta bigarrena eskalada ikastaroa. Piragua ikastaroa, astelehenean hasiko da, eta hi-

laren 10ean emango da amaitutzat. Arratsaldeko 16:00etatik 17:30etara bitartean izango da Fagollagan. Eskalada ikastaroa berriz, uztailaren 21, 23, 28, 30 eta 31 ean izango da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, Santa Barbaran. Izen emateko azken eguna hilaren 15a izango da, eta link honetan egin daiteke: <https://labur.eus/GiplB>.

Fidantza eta aukeraketa

Udalak jakinarazi du, ikastaroek 10 euroko fidantza dute, eta ikastaroaren lehenengo egunean irakasleari entregatu behar zaizkiola. Gainera, «saio guztietan parte hartzen bada, azken saioan dirua itzuliko da».

Izen emate kopurua ikastaroak dituen plaza kopurua baino altuagoa bada, «zozketa bidez egingo da aukeraketa, kasu guztietan». **K**

Ereñotzuko auzo batzarra, atzeratuta

EREÑOTZU AUZO BATZARRA

Gaur zen egitekoa Ereñotzuko auzo batzarra goizeko 10:00etan, Ereñotzuko futbol zelaiaren inguruko gaia lantzeko. Auzo Udalak jakinarazi du «atzeratu» egingo dela. Beraz, gaur ez da auzo batzarrik egingo.

'Kaiolak suntsitu' aurkezpena, gaur

HERNANI URUMEA HERRI GUNEA

Gaur, goizeko 11:00etan, *Kaiolak suntsitu* aurkezpena egingo da Urumea Herri Gunean, beharrezko segurtasun neurriak hartuz. Bertaratzeko deia luza-tu dute.

'Los Miserables' gaurkoan

HERNANI ZINEA KALEAN

Atzo haurrentzako filma jarri zuten Atsegindegiko pantailan, haurrentzat. Gaur aldiz, helduen txanda da, eta *Los miserables* pelikula jarriko dute, gaueko 22:00etan Atsegindegian. Aldez aurretik, Biterin hartu behar da gonbidapena.

Goizean eta arratsaldean, pelota partiduak

HERNANI ESKU PELOTA

Gaur, Zikuñagako eta Hernaniko Txapelketak jokatuko dira, goizean eta arratsaldean. Goizean, lau partidu jokatuko dira goizeko 10:30etan hasita, eta arratsaldean beste lau, arratsaldeko 16:00etan hasita.

'Dama beltzak' gaur

GOIZUETA KONTZERTUA

Dama Beltzak taldea ikusteko aukera egonen da gaurkoan Goizuetan, 22:00etan hasita.

ZUZENEAN ➔

50 ERREMONTA TXAPELKETA

GALARRETA
Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:5€)

UZTAILA 4 Larunbata 15:15

1 URRIZA ZUBIRI VS ANSA II LARRANAGA

2 GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV VS JUANENEA ENDIKA

3 SEGUROLA ARRUARTE VS ETXARRI LABAKA

sukia ERREMONTA GALARRETA DV ORIA MENDI Orona

GAUR Giro eguzkitsua nagusitua da gaurkoan. Egunsentian behe-laino pixka bat izan dezakegu, baina zerua ia garbi egongo da. Iparraldeko haize suabea ibiliko da. **Min.13° / Max.23°**

BIHAR Igandean tenperatura gehiago igoko da eta maximoak 25 eta 30 °C artekoak izango dira; Ipar haizea ibiliko da, beraz giroa oso atsegina izango da egun osoan zehar. **Min.14° / Max.25°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Aguado** Nagusia, 21 (Astigarraga) **943 550327** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

RISKO INBURNABITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Donostiarrak regata gaur, A Coruña

Gaur eta bihar A Coruña banderari dagozkion bi estropada jokatu dira, eta Donostiarra bertan izango da. Patroia eta bi arraunlari hernaniarrak dira.

HERNANI ESTROPADAK

Gaur emango zaio hasiera, Eusko Label Ligari, A Coruña. Aurretan, tamalez, Hernaniko emakumeek ez dute aukerarik izan parte hartzeko, hala ere, gaur eta etzi jokatu diren bi estropadetan, Donostiarrak hartuko du parte, eta hiru Hernaniar daude bertan. Hala nola, Jon Iruretagoiena patroia dena, eta bi arraunlari, bat Xabat Pastor eta bestea berriz, Iban Verdugo.

Gaurko eta biharko estropadak, A Coruña banderari dagozkionak izango dira. Datorren larunbatean, Donostian jokatu dute, eta igandean berriz, Zierbenan ariko dira.

Eusko Label Liga

Honako hauek izango dira aurtengo Eusko Label Ligan parte hartuko duten traineruak: Orio, Go Fit Hondarribia, Santurtzi Transportes y Gruas Aguado, Zierbena Bahias de Bizkaia, Bermeo Udaibai Avia, Donostiarra, Ondarroa Cikautxo, Cabo, Kaiku Vusa, Lekitarra Elecnor, Ares eta Zarautz Babyauto. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Apartamentua alokagai Benidormen, Levanteko hondartzatik gertu. 60 m karratu, lau laguntzat, bi pisinarekin. **Deitu: 670 415 133 (Maria Jose)**
Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularak emateko prest, deitu: 618 119 781
TZ19 Panasonic argazki kamara bat galdu zen, pasa den igandean, Lowe zorroa zuena. Karmelo Labaka birbilgunearen eta Atletismo pistaren artean. **Deitu: 626 454 340.**
Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILA ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**
Etxebizitza alokairuan. Deitu 619 81 33 57
LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratu: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**
Neska euskalduna goizez edozer lan egiteko prest! Deitu: 637 30 28 52
Astigarragako sagardotegia batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana. **landepartamendua@gmail.com**
19 urteko neska umeak zaintzeko lan bila, esperientziarekin. **Deitu: 688 697 001**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

Jardunaldi erabakigarria, gaur arratsaldekoa

Gaur jokatu dute Galarretan, ligaxkaren azkeneko jardunaldia, arratsaldeko 16:00etan hasita.

HERNANI ERREMONTEA

Gaur jokatu da, arratsaldeko 16:00etan hasita Galarretan, ligaxkaren jardunaldi erabakigarria, frontoiaren 50garren urteurrena ospatzeko torneoan, hain zuzen.

Ligaxkako hirugarren eta azken partidua jokatu dute

lau bikoteek; alde batetik Endika Barrentxea hernaniarrak eta Goikoetxea V, Juananea eta Endikaren aurka. Eta bestetik, Aritz Zubiri goizuetarra eta Urriz, Ansa II eta Larrañagaren aurka ariko dira.

Dena dago jokoan, gaur arratsaldeko 16:00etan jokatu diren partiduetan. **K**



Endika Barrentxea eta Goikoetxea V, Juananea eta Endikaren aurka ariko dira.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANGELI ETXABE OIARZABAL
(Manuel Arruabarrenaren alarguna)
Maiatzaren 4an hil zen, 93 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian bego -
Seme-alabak: M^a Angeles eta Juan Miguel, Begoña; bilobak: Ibai eta Naroa, Haritz, Leire eta Fran; birlobak: Markel, Martina, Elene, Ane; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **HAMARRAK ETA ERDIETAN, Astigarragako ANDRE MARIAREN ZERURATZEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Astigarraga-Hernanin, 2020ko uztailearen 4an
Helbidea: Astigarraga Casa Portutxo

PASCUAL AROZENA APEZETXEA
Donostian hil zen, 2020ko apirilaren 28an, 97 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian bego -
Bere anai-arrebak: Maritxu eta Juan Jose (†), Xanti (†), Manuel (†), Felix (†) eta Hipoli (†), Ines eta Felix (†), Trini (†) eta Joxe (†), Jose Ramon, Luis, Genoveva eta Bixente (†), ilobak eta gainerako ahaideek.
Familiak, otoitz bat eskatzen dizuete bere animaren alde eta **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **SEIETAN, EREÑOTZUKO ANDONI DEUNAREN** parroki elizan egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko, aldez aurretik.
Hernanin, 2020ko uztailearen 4an

MARITXU GABIRONDO ZABALA
Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango gara zu beti gurekin.
GURE IRRINTZILARIA SAN JOAN KONPARTSA
Hernanin, 2020ko uztailearen 4an

MARITXU GABIRONDO ZABALA
Beti izango zaitugu gogoan.
PARIENTE ALONSO FAMILIA
Hernanin, 2020ko uztailearen 4an

DOLORES LUJANBIO LOIARTE
(Bixente Zubiriren alarguna)
Martxoaren 17an hil zen, 90 urte zituela.
- Goian bego -
Seme-alabak: Joxe Mari eta Carmen, Lurdes eta Alfredo, Juan Joxe, Miren eta Dirk, Argiñe eta Oskar; bilobak: Ibai eta Iratxe, Egoitz eta Arantxa, Lehior eta Angela, Nahikari eta David, Jare eta Ur; birlobak: Laiene, Nahia eta Eñaut; ahizpa: Milagros.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko **HAMABI T'ERDIETAN, AMA BIRJIN JASOKUNDEAREN** parroki elizan egingo den mezara. Aldez aurretik, mila esker.
Goizuetan, 2020ko uztailearen 4an

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA
Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora
24 orduko tlfnoa. **943 33 10 20** www.funerariaorbegozo.com Zentrala - Latsunbe 7, Hernani
HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...